Badakit ez dana atarikoa amaitzeko modurik onena nik neuk argitu ezin izan dodan gai bat hona ekartzea argi bila. Babarrunak: *tolosana*, Tolosakoa (eman dezagun) eta *gernikesa* Gernikakoa (emon dagigun), bai. Zein da baltza eta zein gorria? Hau geure arteko kontua da, honetan ez da beste hizkuntzarik tartean.

Hiztegi batu idealerantz

Xabier Amuriza

Izenburuko "ideal" kalifikuak ez dau "ezinezko" edo "utopiko" esan gura. Soil-soilik, hiztegi batu "normaldua" litzateke. Gitxi gorabehera, gure inguruko hizkuntza sendoen antzekoa. Bere bila gabilzen "normaltasun" hori euskararentzat, oraindino, nahikoa urrun edo "ideal" dakusgu, zoritxarrez. Baina helburu ideal hori, zorionez, lorgarri be bada, gehienbat geure esku dagoelako. Hizkuntzaren erabilera, zabalkundea, atxikimendu afektiboa, berba batean, euskararen ezarpen soziala ez dago geure esku bakarrik. Batzuetan oso dudazko den borondate kolektibo eta praktikoaz gainera ("praktikoa" batez be), beste faktore asko gainditu behar dira. Hizkuntza lantresna moduan hartuta, ostera, gehiena geu euskaldunon esku dago.

Hemen ez naz hizkuntzaren alde sozialaz edo afektiboaz ari, tresnatzat edo, zehazkiago, lantresnatzat hartuta baino. Euskaragaz lanean gabilzenean (berbetan, idazten, itzultzen), ez gabilz pentsetan zelako altxorra daukagun, zelako pentsakera damoskun, zer hizkuntza berezian dihardugun, zer ondare "zoragarriaren" jabe garen. Soil-soilik, gauza batzuk azaldu, pentsakizun batzuk adierazo gura doguz, eta orduan konturatzen gara gure lantresnak, sarritan, zailtasunak sortzen deuskuzela, eta ez gitxitan, ezintasunak. Tresna hori egokitzea, lehiakortzea, bere gaitasunei aurrera eragitea, geure esku egon leiteke, eta dago.

Suposamen horretatik abiaturik idatzi neban saiakera bat, honako izenburuduna: *Osoa, lehiakorra, nazionala. Euskara batuaren bigarren jaiotza.* Bertako atal nagusietako bat hiztegia eta hiztegigintza ziren. Lan honetan, gai horretantxe zentratuko naz gehienbat, saiakera haretan planteatuak gehiago zehaztuz eta, ahal bada, gehiago finkatuz. Saiakera haren abiapuntu nagusia "ondare komuna" legez definitu nebana zen. Horrek aurretiko gogoeta batzuk behar ditu, auzia kontzeptualki eta historikoki hobeto ulertzeko.

Ondare komuna

Euskarari bere bilakaeran gertatu jakon aberiarik handiena purismoa edo garbizaletasuna izan zen. Baita puritanismoa be. Posible zela sinistu zen, beragan ez sortu ez garatu ez ziren arte, zientzia, filosofia eta teologietan (berba batean, europar eremuko jakintza milenario guztian), "larre-hizkuntza" batek bere barrutik birsortu edo berrizentatu zeikeela dana. Gauza jakina da kleroaren presentzia nabarmena euskal literatura tradizionalean, baina abade edo fraile horreek ez eben besterik egin beste hizkuntza batean ikasi edo irakasten ebena euskarara "itzultzen" saiatu baino. Axularrek, Kardaberazek, Mogelek, Añibarrok, Azkuek, Villasantek... ez eben teologiako karrera

euskaraz egin. Eta karrera hori egin genduenok (gure seminarioan lau urte ziren) dozenaka asignatura gainditu behar izan genduzen, oinarrizko jakintza bat hartzeko. Gero bazen espezializazino ugari, eliz unibertsitate indartsuetan, era guztietako doktoradutzak barne. Kontuak kontu, milaka berbatako terminologia maneiatu behar zen, ze, bere kontzeptu espezifikoez gainera, teologia oso loturik zegoen beste hainbat jakintzagaz: filosofia, zuzenbidea, morala, historia, artea bera (arte erlijiosoa mendeetan nagusi izan zen), kultura greko-erromatarra... Teologiako hiztegien zati handihandi bat, beraz, hiztegi zibila be bazen. Aitatutako terminologia horretan, proportzino handi bat, oso handia, berba komunak ziren eta dira, hizkuntza bakotxak latinetik edo elkarrengandik garatu zituenak. Euskal idazleak, elizgizonak, hori guztia itzultzen hasi zirenean, mundu barri oso bat aurkitu eben, euskaran ez zegoena. Lanean hasi ziren, eta "itzulpena", hots, berba askoren asimilazinoa, nahiko erizpide sano eta zentzunezkoan zetorren, Iparraldean batez be, harik eta Hegoaldean, aurretik be zabaltzen hasiak ziren mito garbikoiei jarraituz, radikalismo ideologikoak euskararen purismoa be askakuntza politikoan sartu eban arte. Purismo harek pentsatu eban ze (pentsatu genduen) unibertso kontzeptual hori guztia euskaraz birsortu zeitekeela. Inozentzia horrek ("itsumen erruduna" be esan leitekeen horrek) tunel batean sartu ginduzen, eta oraintxe da unea, mende bat baino gehiago igaro ondoren, oraindino tuneletik urten ezinik gabilzena.

Ez da mende erdi (Arantzazu, 1968) Euskaltzaindiak euskara batua ofizialki onartu eta arautzeko erabagi historikoa hartu ebana. Orduan, hiztegi arloan, erdibide bat ikusi zen, garbikeria gaindituko ebana, baina mordoilokerian jausi gura ez ebana. Neure ustez (urteen ondorengo distantzia erosoagotik ikusita, jakina), oso erdibide inkonkretua izan zen, aurrerago jotzea gatxa zen eta. Maileguak onargarritzat jo ziren berba "tekniko" edo "kultoetan", *telefono, mekanika, kosmo, robot, atomo, energia, ideia, sinkronia* eta abar. Baina zabaltzea nahiko derrigorrean eta aukera murritzean gauzatu zen. Urte batzuk geroago be, "materia" lako termino hain funtsezko batentzat, esaterako, *ekai* ordain egokitzat jotzen zen, Koldo Mitxelenak be egokitzat jotzen eban. Ehun bat berbaren konstelazino hain garrantzitsua oinarritzen dauen "forma", esaterako, hiztegi batzuek eta idazle askok jaso be ez eben egiten. Urteak joan ahala (gehienbat testugintzak eraginda, seguruenik), bideak zabalduz joan ziren. Tunelaren arnasbideak gehitu eta handitu ziren. Asko handitu be. Izan diren aurrerapenak ukatzeko baizen setatia ez naz. Kontua da, ostera, arnasbideak ez direla tunelaren erremedio. Tuneletik urten egin behar da. Nora? Erizpide zehatz eta argiago batera. Erizpide hori "ondare komuna" izan daiteke. Aitatu saiakeran ninoen:

> *"Hitz kulto edo teknikoen presuntzioak eremu murritzegia atzematen du, kalifikazio hori orokorregia, zehaztasun gutxiegikoa baita. Zuzenen eta praktikoen deritzodan irizpidea hitz 'komunak' da. Zeintzuk hizkuntza hartu behar ditugu komuntasunaren errefentziatzat? Gutxienez, gaztelania, frantsesa eta ingelesa. Hiru hizkuntza horien inguruan, gu gauden mendebal eremua ondo ordezturik dagoela esan daiteke, bertan sartzen baitira katalana, galegoa, portugesa, italiera eta, hein batean, beste batzuk ere, suposatzen dut. (...) Hizkuntza horiek konpartitzen dituzten hitzetan, euskarak irtenbide erraza dauka, edo behar luke: delako hitz baten 'ordain argirik eta bereizirik' ez badago, hitz komuna hartu. Hitz komuna ez denean, eta hala ere, euskarak ordain argirik ez daukanean, zein hizkuntzatatik mailegatu pentsatu beharko da. Edo, agian, euskararen barrutik hitz berri bat sortu. (...) Gure inguruko hizkuntza indartsuek mailegatzeko eskrupulurik ukan ez dutena euskarak saihesteari kamuskeria deritzot. Tamalez, horixe egin dugu. Zer lortu da? Hizkuntza guztia deskolokatzea. Indefinizio etsigarria. Anbiguotasun nekagarria".*

Ondare komuneko zerrenda bat (esp., fr., ing.)

Auziaren dimentsinoaz jabetzeko, hona bokabulario labur bat, zazpirehun bat berbakoa izan arren, hiztegi osoaren aldean, benetan "laburra" dana. Laburtasun horretaz, ohar kokatzaile batzuk:

1) Zerrenda hau beste saiakera baterako eginda daukadan bokabulario luzeago baten hautu bat da. Bi mila eta berrehun bat berbako zerrenda hori zazpirehun batera jatsi dot.

2) Berba horreek, zerrenda luzean zein laburrean, askoz zerrenda luzeagoa osotzen dabe, familia bakotxetik berba bakarra (gehienez, bi) jasotzen baita. Esaterako, *adaptazio* sarreraren azpian, *adaptatu, adaptakor, adaptagarri, adaptatzaile, adaptatuki, adaptagarritasun, adaptazionismo* ikusi behar dira. Beraz, bi milako zerrenda hiru-laubostez biderturik, milako mordoak urtengo leuke.

3) Zerrenda luzean, begiratu batean problematiko begitandu jatazen berbak jaso ditut, hautu zehazki exhaustiborik egiten ahalegindu barik. Mila batzuk nahikoa dira auziaren dimentsinoaz konturatzeko. Beste berba asko jasotzeke utzi ditut, nahiz eta euretan be segurantza osorik ez izan hiztegietan.

4) Ondare komuneko milako mordo luze bat jasoa izateko aukeratik kanpora gelditu da, euskaraz onartutzat ikusten nituelako. Gure hiztegietan honelako berbak gehiago direla esango neuke (milako asko, behintzat), zorionez, euskal berbatzat normaldurik dagozenak. Erramun Gerrikagoitiak *Euskarazko arrotzhitzak eta hitzen derivatuak* izeneko liburuan dino "20.000 arrotzhitz inguru alphabetikoki ordenatuak" jaso dituela. Guztira, ia segurua da ondare komuneko berbak hizkuntza osoaren erdiak baino gehiago direla. Ez dakit halan izango den, baina aditu batek esan eustan, ingelesean, % 60tik gora direla berba komunak.

5) R hizkian zerrenda bat sartu dot, bide batez adierazteko R = ER/AR araua askatzen hasi behar dela. *Rakitismo, ratifikatu, ribal, ruina, rural, rustiko* eta abar *errakitismo, erratifikatu, erribal, erruina, errural, errustiko* idaztea inertzia arlote samarra begitantzen jat. Kasu batzuetan, zeintzuk batera eta zeintzuk bestera idatzi dudazkoa izango da, baina, oro har, berba barri samarretan ez dot uste praktika egokia denik, bardin okerra litzatekeen legez euskarak beste erara asimilatu dituenak (*arropa, arrosario, arrazoi, erremate, errenditu*...) aldatzen hastea.

6) Azkenik, gorago esandako moduan, ondare komunaren adierazlea espainol, frantses eta ingelesaren batasunean ezarri dot. Beraz, berba bakotxean adierazo beharrik barik, ondorengo zerrenda guztia da hiru hizkuntzek konpartitzen dabena. Hizkuntza bakotxak, jakina, berba bakotxa bere erara garatu dau, baina danek onartzen dabe terminoa. Eta, gehien-gehienean, terminoaren deribatu guztiak be bai.

Abalantxa
Abarizia
Abertsio
Abido
Abismal
Abismo
Abnegazio
Abominazio
Abrebiazio
Absentzia
Absortzio
Abstruso
Abundantzia
Adaptazio
Adbersario
Adberso
Adbersitate
Adherentzia
Adizio
Adizional
Adiposo
Adkisizio
Admirazio
Adornu
Aduzitu
Adulazio
Afable
Afinitate
Afirmazio
Aflikzio
Afluentzia
Agiltasun
Agrabazio
Akieszentzia
Akzesible
Akzeso
Akzidental
Azeptazio
Azido
Aklamazio
Akreditazio
Aktitude
Aktu
Aktuazio
Aktual
Akuatiko
Akumulazio
Alterazio
Alterno
Alternantzia
Alusio
Anbizio
Angustia
Animazio
Animoso
Anodino
Anplitude
Antizipazio
Anulazio
Aparentzia
Apreziazio
Aprehentsio
Apropiazio
Arbitrario
Arbitrarietate
Ardente
Ardore
Arido
Aromatiko
Aromatizatu
Arrogantzia
Asalto
Asaltatu
Asentimendu
Asertzio
Asignazio
Asistentzia
Astringentzia
Astuzia
Atentzio
Atenuante
Atrakzio
Atraktibo
Atribuzio
Atrizio
Atroz
Atrozki
Audazia
Audizio
Audientzia
Audiobisual
Austeritate
Auxiliar

Bakante
Balidazio
Baltsamo
Banal
Banitate
Bandidu
Bariable
Bariatu
Bariazio
Barietate
Basiko
Begetal
Begetazio
Belikoso
Beligerantzia
Benebolentzia
Benerazio
Benigno
Bentilazio
Berbal

Berbalizatu
Berifikazio
Bersatil
Bestial
Beterano
Biable
Bibrazio
Biolazio
Biolentzia
Biriltasun
Birulentzia
Biszeral
Bitalitate
Blasfematu
Bokabulario
Boluntario
Boluptuoso
Borazitate
Brusko
Brutal
Bulgar
Bulgaritate
Bulnerable
Brabo

Debakle
Debastazio
Debate
Deboratu
Defekzio
Defektu
Deferentzia
Defizientzia
Definitibo
Deformazio
Degenerazio
Degradazio
Dekadentzia
Deklamazio
Deklarazio
Delizia
Dementzia
Denuntzia
Deprabazio
Deribazio
Deskontzertu
Deskreditu
Deskubrimendu
Desenbarku
Deshonest
Desorientazio
Desplazamendu
Despopulazio
Desproportzio
Detekzio
Determinazio
Dezentzia
Dibertsitate
Dibino
Dibisible
Dibisio
Difamazio
Difusio
Difuso
Dignitate
Dikzio
Direkto
Direkzio
Disipazio
Diskordia
Diskrezio
Diskusio
Dispertsio
Distintzio
Doble
Domestikatu
Dominazio
Dozilitate
Dualitate

Ebaneszentzia
Ebidentzia
Ebokazio
Edukazio
Efikazia
Efimero
Efizientzia
Efusio
Egoismo
Ekitate
Ekibalentzia
Eklosio
Elegantzia
Elisio
Elokuentzia
Emisio
Emozio
Enbarku
Enormitate
Entusiasmo
Enuntziazio
Epilogo
Episodio
Epitafio
Errebelazio
Erreberbero
Erreberentzia
Errebersible
Errebelde
Errebelio
Erredentzio
Erredentore
Erredukzio
Erreflexio

Erreflexibo
Errefutazio
Erregenerazio
Errehabilitazio
Erreklamu
Errekonozitu
Erresignazio
Erretizentzia
Errezesio
Erreziproko
Erupzio
Esentzia
Eskisitu
Esklamazio
Esklusio
Eskrezio
Espantsio
Espantsibo
Espasmo
Espezial
Espezifiko
Espektakular
Esplendore
Espektazio
Esplikazio
Esplosio
Esplosibo
Espresatu
Espresio
Espropiazio
Espultsio
Establetasun
Esterilizatu
Esterminazio
Estintzio
Estrabagantzia
Estrikto
Estridentzia
Estudiatu
Estudio
Eszentriko
Eszitazio
Eternitate
Exakto
Exaltazio
Exasperazio
Exentzio
Exhibizio
Exonerazio
Exotiko
Expiazio
Exuberantzia

Faszinatu
Faszinazio
Fatal
Fatalitate
Felino
Femenino
Ferbore
Ferozitate
Fetido
Finalitate
Flagrantzia
Fluktuazio
Fornikazio
Fraternitate
Frikizio
Fribolitate
Frugalitate
Fulminante
Furia-furore
Futuro
Futilitate

Galanteria
Galope
Generositate
Gestu
Gloria
Gratuitate
Grabitate
Grotesko

Halo
Hegemonia
Hekatonbe
Herbiboro
Hilaritate
Honestasun
Horizontal
Horizonte
Horrible
Horrore
Hostil
Hostilitate
Humano
Humanizatu
Ignizio
Ignominia
Ignorantzia
Immentsitate
Imminentzia
Inakzio
Inbalido
Inbokazio
Indefinizio
Indeterminazio
Indezentzia
Indiferentzia
Indignazio
Indignitate
Indirekto

Indiskrezio
Indibidu(o)
Indibidual
Indolentzia
Indulgentzia
Inefiziente
Inefikaz
Inexakto
Inexorable
Inespresibo
Infalible
Infamia
Infantil
Inferioritate
Inflamazio
Inflexible
Influentzia
Infrakzio
Ingenuitate
Inhalazio
Inhibizio
Inhumano
Injustizia
Inklusio
Inkongruentzia
Inkonpetentzia
Inkonprentsio
Inkonstantzia
Inkontinentzia
Inkorrekzio
Inkonkrezio
Inoportuno
Inoportunitate
Inpasibletasun
Inpazientzia
Inpekable
Inpermeable
Inpertinentzia
Inpietate
Inprezisio
Inprobable
Inprudentzia
Inpunitate
Inpuritate
Inputazio
Insistentzia
Insolentzia
Instinto
Instintibo
Insurrekzio
Integritate
Interbentzio
Intonazio
Intransigentzia
Intransitibo
Intriga
Intrinseko
Introbertsio
Intzidentzia
Irrigazio
Irritazio
Irrupzio

Jardin
Jobialtasun
Jurisdikzio
Jurisprudentzia
Justizia

Kabitate
Kalma
Kalumnia
Kanpioi
Kantzer
Kandore
Kapazitate
Kapzioso
Kaptazio
Karizia
Karniboro
Kastitate
Kastrazio
Kataklismo
Kazike
Klaribidentzia
Klementzia
Kliente
Kointzidentzia
Kolekzio
Kolosal
Kolumna
Konbaleszentzia
Konbate
Konbergentzia
Konbultsio
Konfesio
Konfluentzia
Konfuso
Konklusio
Konkordantzia
Konkupiszentzia
Konpatible
Konpetentzia
Konpilazio
Konpleto
Konsistentzia
Konstantzia
Konsternazio
Kontsentitu
Kontenplazio
Kontingentzia
Kontrakzio
Kontradikzio
Kontrobertsia

Kontumazia
Kontusio
Kontzisio
Kontziso
Kordial
Korrekzio
Korrupzio
Kuestio
Kulminazio
Kultibatu
Kuriositate
Kurtso

Lakaio
Langido
Lakoniko
Laszibo
Latente
Laxatibo
Legenda
Legitimo
Letargia
Letargo
Linea
Lineal
Literal
Lokal
Lokalizatu

Magnanimo
Magnate
Makabro
Maleable
Malignitate
Manual
Manufaktura
Masakre
Maskulino
Maternal
Maximo
Mediebal
Mediokritate
Menstruazio
Menbro
Mental
Milenio
Modifikazio
Morbido
Mortal
Mortifikatu
Multiple
Multiplikatu

Nasal
Nasalitate
Natibo
Nebuloso
Negligentzia
Nostalgia
Nubilaro
Nulitate
Nulo

Obesitate
Obserbazio
Obstinazio
Obstrukzio
Ofentsa
Oklusio
Omisio
Ondulazio
Opakotasun
Oportuno
Oportunotasun
Opulentzia
Ostentazio
Oszilazio
Paziente
Pazientzia
Paritate
Partikular
Pasio
Pasional
Paternal
Patrimonio
Pedante
Penetrazio
Perfidia
Perforazio
Permanentzia
Persistentzia
Persuasio
Pertinentzia
Pertzepzio
Pietate
Pionero
Polibalentzia
Poluzio
Populartasun
Posesio
Preeminentzia
Prekauzio
Prezipitazio
Prezisio
Premonizio
Presentzia
Presidentzia
Prestigio
Primario
Primitibo
Printzipal
Prioritate
Probable
Proklamazio
Produkzio

Progresio
Progresu
Prolifiko
Prominentzia
Promulgazio
Prosperitate
Prudentzia
Purifikazio

Rakitiko
Rakitismo
Ratifikatu
Ratifikazio
Regresio
Restrikzio
Ridikulu
Rigore
Ribal
Ribalitate
Ruina
Ruinoso
Rural
Ruralismo
Rustiko
Rustizismo

Satisfakzio
Seberitate
Sedazio
Sedizio
Sedukzio
Sekundario
Selekzio
Seniltasun
Separazio
Sezesio
Sibilino
Sideral
Sintzeritate
Singulartasun
Sinistro
Sinuoso
Situazio
Sobrietate
Solemne
Solidario
Soluzio
Solbentzia
Sonoritate
Sordido
Sublime
Subordinazio
Suborno
Substantzia
Substantzial
Subtil
Subtiltasun
Sugerentzia
Sugestibo
Suizidio
Sumisio
Superfizial
Superbisio
Suplantazio
Supresio
Supurazio
Suspentsio
Teatral
Teatralitate
Temeritate
Tenporal
Territorial
Total
Transfigurazio
Transformazio
Transgresio
Transitibo
Transparentzia
Transpirazio
Transluzido
Transzendentzia
Triunfal
Triunfalismo
Turbulentzia
Tutela

Ubikuo
Unanime
Uniforme
Unilateral
Uniboko
Urbanitate
Urbano
Urgentzia
Usurpazio
Utilitate

Zertifikatu
Zona
Zonal

Hiztegien jokaeraren adibide batzuk

Adibideotan, berben ordainak bakarrik jaso dodaz. Hiztegi bakotxak dakarzen adibideak kanpoan lotu dira, gure helbururako, atentzinoa nahasten dabela usterik. Erdaretan, lau jaso dodaz, portugesa barne, erabilitako iturriak (*WordReference.com. Diccionario de sinónimos y antónimos*) lau horreexek darabilzelako.

Ambicion

Labayru: *handigura, handinahi, askogura, askonahi, goragura, goranahi, largura, -gura, -nahi, desio, gogo, irrits* (anhelo)

3000: *irrits, askogura, handinahikeria, uzi, largura*

Elhuyar: *nahi, gura, gurari, desira, lehia (bizi), gogo, asmo, uzi, anbizio; handinahi, goranahi, askonahi, askogura*

Zehazki: 1*) nahi bizi, grina* 2) *handinahi, goranahi*

Ambicioso

Labayru: 1) Ref. a proyectos, que demuestra ambición*: handi, eder, itzel(ezko).* 2) Persona que tiene gran ambición: *dana/dena gurako, anbizino/anbizio / asmo handiko, handigura(ko), gehiago-gurako / -nahi, askogura(ko), askonahi, handizale, goragura(ko), goranahi;* codicioso *gose(ti), gutiziatsu;* de riquezas *diruzale, zeken*; expr. *dirugose, diruegarri*

3000: 1) *handigura*, *handinahi.* 2) ambicioso/sa; grande: *handi*, *bikain*, *eder*

Elhuyar: *anbizio handiko; askonahi, handinahi, handizale, handinahiko, goranahi;* [referido a objetivos, proyectos] *asmo handiko, handi*

Zehazki: *handinahi, handinahiko, handizale*

Sinonimoak 3000:

1) *largura, irrits, gutizia, handinahi, askogura*

2) *gutiziatzaile, gutizios, irritsu, askonahi, dirugose, diruzale, ñapur*

Sinonimoak UZEI

1) *askonahi, goranahi, handinahikeria, askogura, handigura., handinahitasun, handizaletasun, largura, anbizio*

2) *handinahi, askonahi, goizale, handigura, handinahiko, handizale, askonahiko, goranahi, handikari*

Sinonimoak WordReference (Ikus Julio Casaresen "Diccionario ideológico" be).

1) *Ambicion, ansia, codicia, deseo, anhelo, apetencia, aspiración, pretensión, afán, avidez*
2) *Ambicioso, codicioso, ansioso, deseoso, insaciable, intrigante, calculador*

Ingelesa: *ambition.* **Frantsesa:** *ambition.* **Portugesa:** *ambiçaõ*

Ambicioso

Ingelesa: 1) ‹persona› a) (codicioso) *ambitious, overambitious* b) (con empuje) *enterprising, ambitious* 2) ‹proyecto/plan› *ambitious*. **Frantsesa:** *ambitieux(euse)*. **Portugesa:** *ambicioso(a)*

Oportuno

Labayru: 1) Que se hace o sucede en el momento adecuado: *erazko, egoki, era oneko, behar dan momentuko/behar den mementoko, apropos*; idóneo: *autuko /hautu(z)ko, aukerako, hartako, hautu, aukeratu; apropiado jaseko, taiuzko/ taxuzko, ganorazko* 2) Ingenioso u ocurrente: *burutsu, jeinutsu, asmotsu, (buru)argi, mainatsu* (mañoso), *burugin* (tb. prudente)

3000: 1) *egoki*, *aukerako*, *apropos*, *eroso*, *erako*, *ordu oneko, aiutu*, *beharrezko*, *alagalako* 2) ocurrente: *ateralditsu*

Elhuyar: 1 *egoki, apropos, beharrezko, bidezko* 2 persona: *burutsu, asmotsu*

Zehazki: *egoki*

Oportunidad

Labayru: 1) Momento y circunstancia oportunos: *era (on), abagune, parada, aukera* (opción), *une* (frec. en composición), *bide, komenentzia, egokiera, okasino/okasio.* 2) Cualidad de oportuno: *egokitasun*.

3000: *abagune, era, aukera, atajoda, deretxa, parada, bide, egokiera, adiuntza, ereti, bitarte, une, aldi, tenore, tentu, zori*

Elhuyar: 1) *aukera, egokiera, parada, abagune; tertzio, mugon* 2) *egokitasun*

Zehazki: 1) *egokiera, aukera, parada, era (on), abagune* 2) *aukera,* (ganga) *mauka*

Inoportuno

Labayru: 1) Intempestivo: *orduz kanpoko, ezorduko, ezgaraiko, desgaraiko* 2) Inadecuado*: desegoki, egokia ez dan(a)/egoki ez den(a), ezegoki, lakasta (fig.).*

3000: 1) intempestivo: *desgaraiko, desorduko, ezgaraiko* 2) inadecuado: *behar gabeko, desegoki*

Elhuyar: 1) *ezgaraiko, ezorduko, desgaraiko, desorduko.* 2) *desegoki, ezegoki*

Zehazki: *ezgaraiko, ezorduko, tokiz kanpoko, orduz kanpoko*

Oportuno

Ingelesa: 1) *timely, opportune.* 2) *appropiate.* **Frantsesa:** *opportun(e).* **Portugesa:** *oportuno(a), adequado(a)*

Inoportuno

Ingelesa: 1) (visita-llamada) *untimely, inopportune.* 2) (comentario-crítica) *Ill-timed, inopportune.* **Frantsesa:** *opportun(e).* **Portugesa:** *inoportuno(a)*

Inoportunidad

Ingelesa: *inopportuneness.* **Frantsesa:** *inopportunité.* **Portugesa:** *inoportunidade*

Gogoeta batzuk

1) Aitatutako gure eremu zabaleko lau hizkuntza handien hiztegi eredua zuzentzat jo behar bada (gatxa da ezetz pentsatzea), euskal hiztegien jokaera oraindino anabasa handian dabilela atera behar da. (Kasu honetan, anabasak "kaosa" esan gura dau).

2) Berba "teknikoak" alde batera utzita, anabasa hori geuk be arteko izan behar dogun "ondare komuneko" milaka berbatan gertatzen bada, zer egin? "Berba teknikoak alde batera utzi" esan dot, hortxe dago problemarik gitxien eta. Izan be, "urrutizkina" entzutean, esaterako, neologismoa gustetan ez jakonak be badaki argi zer aparatuz dihardugun. Zer material oso zehaztua da, teknologiako gailurik gehienak legez. Zer immateriala izanik be, sarritan, kontzeptua oso zehatza, mugatua izaten da. Esaterako, "biago" (siesta) kontzeptu immateriala da, baina oso argi identifikatzen dogu. Berba asko eta asko, ostera, kontzeptu abstraktuak edo sinbolikoak dira. Ez daukie mugapen zehatzik, baina hain dira garrantzisuak ze, eurek osatzen dabe hizkuntza baten espresinoa, "adimena", zelanbait. Horrelakoak dira milaka berba, direla izen, aditz, adjektibo zein adberbio. Orduan, euren berezko muga zehatzik eza ahalik gehien definitu ezik, adierazpena nebuloso bihurtzen da, hizkuntzaren efikazia galdurik.

3) Bitxia da, goragoko adibideetan, hiztegi normalek berba bati ordain gehiago emotea sinonimo-hiztegiek eurek baino. Placido Mugicaren hiztegia nabarmendu zen joera horretan. Baina Mugicarena 1965ekoa da. Eta, egia esan, bere purismo sistematikoagaitik, bape fidagarri ez bada be (esaterako, *evolución* = *darwinkeria* eta horrelako pitxiak aurkituko dozuz bertan), biltegi moduan oso interesgarria izan daiteke idazle batentzat, kontzeptu baten inguruan, berba interesgarri asko topatu daitekez eta. Baina hiztegi horri, oro har, kriterio ondo egina daukan idazleak bakarrik atera daikeo etekina, eta literatura arloan, gehienbat. Hiztegia lantresnatzat darabilenak hoba dau liburu potolo horri bakean utzi. Hainbestean ez bada be, euskal hiztegiek joera horren jarraitzaile diraue oraindino, sinonimoak pilatuz. Eta arrazoi nagusia, gehienetan, ondare komuneko mailegua saihestetik dator.

4) Elhuyarrek *anbizio* onartzen dau, zerrenda luze baten erdian galduta legez. Adjektiboan, ostera, zerrendaburu dakar: *anbizio handiko.* Labayruk adjektiboaren sinonimoetako bat legez jasotzen dau (*anbizino/anbizio handiko*), baina izenaren ordaintzat ez dau terminoa jasotzen. 3000 Hiztegiak eta Zehazki-k ez dabe ezertarako jasotzen.

5) *Anbizio* kontzeptuaren ordain asko hitz-alkarketen emoitzak dira: *handinahi, askogura, handizale, dirugose, diruegarri...* Honeek, sinonimotzat baino gehiago, alkarketen konkrezino ezbardintzat jo behar dira. Batera, banan ala marratxoz idatzi, ortografia kontua da. (Gaztelaniazko honakoen antzera: *ambición de poder, deseo de mando, ansias de grandeza, pasión por la fama, hambre de oro, sed de riqueza...*). Alkarketen emoitzak ezin dira, beraz, sinonimotzat hartu. *Handigura* eta *diruzale*, esaterako, *diru* eta *handitasun* baizen kontzeptu ezbardinak dira, nahiz eta, sarritan, handitasuna eta dirua sozio onak izan. Euskaraz, alkarketen bigarrenak dira, izatekotan, sinonimoak: *nahi/gura, gogo, grina, gose, egarri, gale, zale-zaletasun...* Batzuetan, alkarketa soilak dira. Beste batzuetan, berba barri eta ezbardinen sorburu bihurtzen dira, atzizki izaera harturik, holan:

NAHI: *zernahi, noiznahi, handinahi, askonahi, goranahi, irabaznahi, bizinahi, zokonahi...*

GURA: *logura, azkura, largura, jangura, jaigura, ibilgura...* (gehi *-nahi* guztiak).

GOGO: *bizi-gogo, jan-gogo, ibilgogo, parranda-gogo, etxera-gogo, plazer-gogo...*

GOSE: *dirugose, urregose, jaigose, logose, lagungose, mendigose, parranda-gose...*

GALE: *logale, pizagale, kakagale, okagale, botagale, tugale, goragale, hazgale...*

ZALE: *etxezale, umezale, handizale, bakarzale, neskazale, kanpozale...* eta nahi beste.

6) Adjektiboaren ordaintzako sinonimo batzuek kontzeptuaren tamainua markatzen dabe. Izan daiteke: *anbizino handia, anbizino txikia, anbizino itzela, anbizino izugarria, anbizino neurribakoa, anbizino infinitua...* Izan daiteke kualitatea be: *anbizino gaiztoa, anbizino zikina, anbizino lotsabakoa, anbizino itsua, anbizino obsesiboa...* Adjektibo soilak ez dau marka espresibo hori emon behar. Gauza bat da *anbizinodun,* eta oso beste bat adibide horreetatiko edozein adjektibo: *anbizino handiko, anbizino izugarriko, anbizino itsuko...*

7) Berba baten eta bere ukapen edo gabetzea esan gura dauen beste berbaren artean, termino asko gurutzatzen da. Honela, lau hiztegiak baturik:

OPORTUNO: *erazko, egoki, era oneko, behar dan momentuko/behar den mementoko, apropos*; *autuko /hautu(z)ko, aukerako, hartako, hautu, aukeratu; jaseko, taiuzko/taxuzko, ganorazko, burutsu, jeinutsu, asmotsu, (buru)argi, mainatsu, burugin, eroso*, *erako*, *ordu oneko, aiutu*, *beharrezko, alagalako, ateralditsu, beharrezko, bidezko.*

INOPORTUNO: *orduz kanpoko, ezorduko, ezgaraiko, desgaraiko, desegoki, egokia ez dan(a)/egoki ez den(a), ezegoki, lakasta, desorduko, behar gabeko, tokiz kanpoko.*

8) *Oportuno-inoportuno* adjektiboen kasuan, erro bereko kontzeptuak izan arren, lehenengoko gehienak ez datoz kontrakoan: *erazko, era oneko, behar dan momentuko/behar den mementoko, apropos*; *autuko /hautu(z)ko, aukerako, hartako, hautu, aukeratu; jaseko, taiuzko/taxuzko, ganorazko, burutsu, jeinutsu, asmotsu, (buru)argi, mainatsu, burugin, eroso*, *erako*, *ordu oneko, aiutu*, *beharrezko, alagalako, ateralditsu, bidezko.* Bigarreneko honeek be ez datoz lehenengoan: *orduz kanpoko, ezgaraiko, desgaraiko, egokia ez dan(a)/egoki ez den(a), lakasta, tokiz kanpoko.*

Bat datozenak honakoak bakarrik dira: *egoki, ordu oneko, beharrezko ? desegoki-ezegoki, ezorduko-desorduko, behar gabeko.*

9) Azkenik, handiena da *anbizio* hitza, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan, jasota dagoela.

Beste adibide batzuk

Auzia garrantzi handikoa denez, beste adibide batzuk emongo dodaz, ikusi eragiteko ez dela berba banaka batzuen kontua, joera sistematikoa baino, erdal berba batek euskal ordain "argi eta bereizirik" ez daukanean, eta ondare komuneko terminoa onartzea saihesten denean.

Adular

Labayru: *-(r)i eder | lausengu egin, lausengatu, palagau/balakatu, losintxatu, losindu;* fig. *koipe(z)tu/koipez(ta)tu, zuritu/zuri(ka)tu, -(r)i koipea emon/eman, -(r)i jaboia emon/-(r)i xaboia eman, -(r)i lepoa igurtzi.*

3000 hizt: *balakatu, xaboia eman, koipatu, zurikatu, lausengatu, losintxatu*

Elhuyar: *losintxatu, lausengatu, koipetu, balakatu, zurikatu*

Zehazki: *losintxatu, balakatu, losintxa egin.*

Adulación

Labayru: *lausengu, palagu/balaku, losin(txa), amainu, leunketa, titulika;* peyor. *koipekeria, palagukeria/balakakeria, losintxakeria, leunkeria, labankeria/labainkeria, zaplanderia, eztikeria; fig. jaboi/xaboi, koipe.*

3000 hizt: *koipekeria, zurikeria, labankeria, eztikeria, zaplanderia, lausengaldi, balaku* adulación perversa: *lausengukeria*

Elhuyar: *lausengu, koipekeria, balaku, zurikeria, losintxa*

Zehazki: *losintxa, leunkeria, zurikeria, labainkeria, balaku* goi

Arrogancia

Labayru: 1 Cualidad *harrotasun, handiuste/hantuste, burueretxi/buruiritzi, handitasun, mukertasun, burgoitasun, ozartasun;* actitud *harrokeria, handikeria, harropuzkeria, burgoikeria, ozarkeria, oilarkeria* (fig.). 2 Valor *harro(putz), (buru)eretxi/(buru)iritzi, handiuste/hantuste, handigura, handinahi, arranpalo, haidor* (tb. altero); fig. *mosugora/musugora, surgora/sudurgora.* 3 *adore, kemen, gogo, ausardia, animo, ausartasun, bipiltasun, kopeta, balore, bihotz* (fig.).

3000 hizt: *handigura, handinahi, burgoikeria, handikeria, handipuzkeria, handiuste, ozarkeria, harropuzkeria, oilarkeria*

Elhuyar: 1 *harrokeria, hantuste, burgoikeria, oilarkeria.* 2 *ausardia, ausartasun, kemen, adore*

Zehazki: *harrokeria, harropuzkeria* pei, *burgoikeria* goi.

Arrogante

Labayru: 1 Orgulloso *harro(putz), (buru)eretxi/(buru)iritzi, handiuste/ hantuste, handigura, handinahi, arranpalo, haidor* (tb. altero); fig. *mosugora/musugora, surgora/sudurgora.* 2 Que es apuesto *galant, armatu, martzal, sona, dotore* (elegante), *eder* (bello); esbelto *lerden, lirain, txairo.* 3 *Que es valiente adoretsu, ausart(i), bulartsu, kementsu, bihoztsu, bihoztun, azarri, bildurbako/beldurgabe, bipil, izukaitz, oldarkor* (osado).

3000 hizt: *harroxko, harroputz, handiusteko, handigura, burgoi, anpurutsu, hanpurus*

Elhuyar: 1 *harro, harroputz, hantuste, burgoi.* 2 *ausart, ausarti, kementsu, adoretsu*

Zehazki: *harro, harroputz* pei, *hantuste, burgoi* goi.

Entusiasmo

Labayru: 1 Emoción *zoramen, zoragarritasun, zirrara, bihotzondoko, hunkipen, zirristada, pilpira, gortasun* (clás.), *asai(a)* (emoción violenta acompañada de sollozos), *alaitasun* (alegría). 2 Afán o ansia *gogo bizi | handi, grina, gogo, irrika, garda, -gura, -nahi;* fig. *su, gar, berotasun;* expr. *behar* (tb. en composición), *-min.*

3000 hizt: *joran, irrika, gar, gogo bizi, su, furia, azkortasun, afan, berotasun*

Elhuyar: *berotasun, su, kar, gar, gogo handi/bizi*

Zehazki: *gogoberotasun, gogo bero, suhartasun, kar, entusiasmo.*

Prudencia

Labayru: 1 Sensatez o buen juicio *zuhurtasun, zentzun(tasun)/zentzu(tasun), zuztar, zuhurtzia, gurbiltasun, zogiera, fundamentu, buru, sen, soegi* (clás.), *formalidade/formalitate* (seriedad). 2 Moderación *neurri(tasun), neurribide, izari.*

3000 hizt: *zuhurtasun, zuhurtzia, tentu, zogiera, arreta*

Elhuyar: 1 *zuhurtzia, zuhurtasun, tentu, kontu* 2 Rel. *zuhurtzia*

Zehazki: 1 (cuidado) *arreta* 2 (moderación) *neurritasun* 3 (sensatez) *zuhurtasun, zuhurtzia* 4 erl (virtud) *zuhurtasun*

Prudente

Labayru: 1 Que actúa con sensatez y moderación *zentzundun/zentzudun, zentzun/zentzu handiko | oneko, zuhur, burudun, arduratsu* (responsable), *adindun, jarri, zori, begiratu* (comedido). 2 Que es razonable *egoki, erazko, behar dan/den moduko, jaseko, taiuzko/taxuzko, errazoizko/arrazoizko.*

3000 hizt: *zuhur, zogi, arduratsu, artatsu, axolati, begiratu*

Elhuyar: 1 *zuhur, burutsu, zentzudun, zogi.*n2 referido a la hora *zentzuzko, arrazoizko*

ZEHAZKI 1 adj *zuhur, zentzuzko* 2 (cantidad, medida) *zentzuzko, neurrizko*

Incompatible

Labayru: *alkartuezin(eko)/elkarrezin, alkargatx/elkargaitz, bateratuezin (eko /bateraezin, adostuezin(eko)/adostezin* (de pensamiento); de difícil convergencia *bateragatx/bateragaitz, alkargatx/elkargaitz, bateratzen gatxa dan(a)/bateratzen gaitza den(a)*

3000 hizt: *bateraezin, elkartezin,* (de modo de pensar) *adostezin*

Elhuyar: *bateraezin, elkartezin, bateragaitz, elkargaitz*

Zehazki: *bateraezin, ezin elkartuzko, elkarrezin:* casi incompatible, *bateragaitza*

Indiferencia

Labayru: 1 Despreocupación (cualidad) *ardurabakotasun/arduragabetasun, ardurarik | lebarik | axolarik eza, axolagabetasun, itxitasun/utzitasun* (dejadez); acto o hecho despreocupado *ardurabakokeria/arduragabekeria, axolagabekeria, itxikeria/utzikeria.* 2 Frialdad (cualidad) *hoztasun, muker(tasun), muzin(tasun), zapuztasun*; actitud fría *hozkeria, mukerkeria, muzinkeria, mutin, zapuzkeria.*

3000 hizt: 1 despreocupación *arduragabetasun, ezaxola, ezaxolakeria, axolagabetasun, antsikabetasun, aihergabetasun.* 2 frialdad de trato *hoztasun, hotzaldi*

Elhuyar: *axolagabetasun, aihergatasun, ezaxola; ezaxolakeria*

Zehazki: *ezaxola, axolagabetasun, axolagabekeria* pei.

Inhumano-na

Labayru: *(bihotz) gogor, bihozbako/bihozgabe, anker, kruel/krudel, bihotz-baltz/-beltz, errukibako/errukigabe, gizabako/gizagabe, gupidagabe, sabelgorri* (fiero), *odolgiro* (sanguinario), *mokor;* ref. a cosas *jasanezin(eko), jasangatx/jasangaitz.*

3000 hizt: 1 *ezgizatiar* 2 persona: *anker, bihotz-gogor* 3 *jasangaitz, jasanezin*

Elhuyar: 1 persona *bihotz-gogor, anker, krudel.* 2 dolor, pena *jasangaitz, jasanezin*

Zehazki: 1 adj (persona) *gizagabe, anker* 2 (dolor, sufrimiento) *gizagabe*

Argia eta bereizia

Descartesek ideiei buruz zinoen "argi eta bereizi" kontzeptua, erdaraz "claro y distinto" ginoena, egoki dakust terminoei aplikatzeko be. Erdal hitz komun batentzat, euskaran ordain argi eta bereizirik aurkitzen ez bada, eta neologismorik be ezin bada argi eta bereizirik sortu, bistakoa da hitz komuna mailegatu behar dela. Eztabaida izan leiteke zein den era horretako hitza, ze bati "argi eta bereizi" begitantzen jakona beste batek iluntzat jo daike. Hiztegi batean, edo hiztegi batetik bestera, berba bati ordain bat baino gehiago aplikatzen jakozenean, seinale garbi samarra izaten da kasu horretarako ez dagoela ordain argirik, ze, balego, bakarra litzateke nahikoa. Berba sinonimoak edo antzekoak ugaritzeak ez dau garantizatzen kontzeptuaren argitasunera hurreratzerik, kontzeptua zorabiatzea baino. Hitz komun batentzat, euskal ordain argirik ez badago, neologismoen baliabidea be, gehienean, zorabioa gehitzeko izango da. Laburbildurik, "ondare komunaren" gehi ordain "argi eta bereizien" kontzeptuek erizpide nahiko zehatza damoskue, jokaera erabagitzeko. Berbak banan-banan erabagi behar direla eta dudako kasu ugari agertuko dela argi izanik, ziur da erizpide bikotx horrek kasuen gehiengoa zuzen konponduko dauela.

Auzia beste era batera planteatzeko, hartu daiguzen *zio-zino* eta *sio-sino* atzizkidun berba ugarietako batzuk, eta formula daigun itauna honela:

Akusazino, errotazino, erlazino, imitazino, obligazino, kondizino, bedeinkazino, intonazino, salbazino, puntuazino, kualifikazino... (eta ehundaka) onartzeko erreparorik ez badago, zerk erabagitzen dau baztertzea: *anbizino, inkarnazino, ostentazino, bariazino, prekauzino, figurazino, transformazino, transfigurazino, expiazino, purifikazino, kastrazino...* lako berba komunak? Era berean, zergaitik bai *okasino, pasino, konfesino, lesino, presino, telebisino, erosino, inpresino, konpresino...* eta ez *sesino, profesino, prezisino, inprezisino, sumisino, opresino* eta abar?

Gorago jarri dogun lehenengo adibide moltzoan, *ambición-ambicioso* hitz komunentzat, lau hiztegietan ez dakust ezein ordain "argi eta bereizirik". Bardin *oportuno-inoportuno-oportunidad* hitz komunen kasuan be, euren adiera printzipalean, behintzat. Beraz, euskal hiztegi idealean, WordReferenceko lau hizkuntzetan letxe, honelatsu letorke:

Ambición: *anbizio*
Ambicioso: *anbiziodun, anbizios(o)*
Oportuno: *oportuno*
Inoportuno: *in(o)portuno*
Oportunidad: *oportun(o)tasun, oportunitate*

Beste kontu bat litzateke bigarren adiera bat edo gehiagoren kasua, *oportunidad* bardin *aukera* eta abar legez. Orduan ez dago dudarik halantxe adierazo behar dela. *Anbiziodun-anbizios(o)*eta *oportun(o)tasun-oportunitate*, sinonimoak baino gehiago, berba beraren formak dira, atzizki bataren ala bestearen gorabeheran.

Hitz komuna gehi euskal ordaina

Ez dago zertan buru-hausi, eta hain gutxi, zertan hasarratu. Hitz komuna eta ustezko euskal ordaina (usteak arrazoizko dirudienean, beti be) sinonimotzat utzi leitekez, alkarren lagun. Duda kasuan, jaso biak, eta erabilerak erabagiko dau. Zuzen ez dirudiena da erabileraren esku uztea, bata edo bestea eliminatu eta gero. Eliminatua, gehienean, berba komuna izango da. Utzi, beraz, alkarregaz ibiltzen honako bikoak: *garantia-berme, seduzitu-limurtu, baldintza-kondizino, eztanda/leherketa-esplosino, zehaztasun-prezisino, oihu-esklamazino, zuhurtzia-prudentzia, eztabaida-diskusino, ondorio-konklusino, ondorio(zta)tu-konkluditu, zapalkuntza-opresino,* eta abar eta abar.

Kontuak horrela, gorago erakutsitako bigarren adibide moltzoa honela utzi daiteke:

Adular: *adulatu, zuri(ka)tu*
Adulacion: *adulazino, zurikeria*
Arrogante: *burgoi, arrogante*
Arrogancia: *burgoitasun-keria, arrogantzia*
Entusiasmo: *berotasun, entusiasmo*
Prudente: *prudente, zuhur*
Prudencia: *prudentzia, zuhurtzia*
Incompatible: *bateraezin, inkonpatible*
Indiferencia: *indiferentzia, aihergatasun*
Inhumano-a: *gizagabe, inhumano*

Esan beharrik ez dago, hiztegi batean, adierak zehaztu eta esaldi argigarriak emon beharko direla. Lantxo hau ez da proposatzen dihardudanaren adibide orientagarri bat besterik. Eta, jakina, behar diren denpora eta kriterio guztiekin be, inoiz ez nintzateke hiztegi bat egiten neu bakarrik hasiko, ekipo nazional baten barruan baino, lan honen azkenean azalduko dodanez.

Berba ez komunak

Orain arte, eta emondako zerrenda guztietan, espainolak, frantsesak eta ingelesak alkarregaz daukiezen berba komunekin jardun dot. Horreetatik aparte, badira beste berba asko, espainolak eta frantsesak konpartitzen dabezenak. Hori be, euskararen kasurako, ez da komuntasun txikia. Badira, azkenik, beste berba asko eta asko, Iparraldean frantsesetik eta Hegoaldean espainoletik hartu doguzenak, eta hartu beharko doguzenak. Espainoletik harako adibide bat emongo dot, bertan lau hiztegien jokaera konparetako.

Afán

Labayru: 1 Empeño o esfuerzo *ahalegin, (egin)ahal* (frec. en plur.), *esfortzu/esportzu, azterrika/aztarrika, jarduntza* (insistencia). 2 Deseo fuerte *gogo | nahi bizi, grina, irrika, desio, lehia, garda, supitu, -gura, -nahi, behar* (tb. en composición); expr. *su, gar, itsumen, erretasun, -min.* 3 Fatiga, apuro o penalidad *larritasun, estutasun, estu(ku)ra, larrialdi, estualdi, egonezin, larridura, herstura, urduritasun* (nerviosismo), *kezka* (preocupación); fig. *itotasun, itoaldi;* trance *egoera | momentu/memento | une | hinka | ataka txar* (tb. con larri, gaizto, etc.).

3000 hizt: 1 ansia *afan, joran, ahalegin, lehia, gar, uzi, pasio, irrika, azku*. 2 pretensión *uzi* 3 esfuerzo *ahalegin, neke*

Elhuyar: 1 *ahalegin, eginahal, lehia; grina, irrika, kar, nahi (bizi), gogo (bizi), gogo (handi)* 2 pl. *Neke(ak)*

Zehazki: 1 *gogo bizi, grina, lehia, joran* goi: afán de aprender, *ikasmina, ikasgalea* goi, *ikasnahia* 2 (empeño) *ahalegin* 3 afanes mpl *lan(ak), neke(ak)*

Ikusten denez, barriro be, adibideak sinonimoen hiztegi bat areago dirudi hiztegi normal bat baino. Hemengo ordainak beste hainbat sarreratan errepikatuko dira: *anhelo, deseo, ansia, aspiración, pretensión, apetencia, ambición, codicia, vehemencia...*

Izan be, inkontzientziaz begiraturik, ugaritasun horrek aberastasuna emon leike. Edo, alderantziz esanda, badirudi sarrera bakotxa ordain bakarrera edo bitara ekartzeak aberastasuna murrizten dauela. Irudipen okerra eta faltsua da hori, ze kontuan izan behar da erdal sarrera edo berba horrek berak be gero, hiztegi guztian zehar, sinonimo piloa izango dauela, non sobra okasino dagokeen euskal sinonimo guztiak eta gehiago euren lekuan kokatzeko, danak danean errepikatzen ibili barik, indefinizino gogaikarria sortuz. Hona jarraian hiru adibide (*inhumano-a, prudencia, entusiasmo*), euskal ordain posibleak zenbat sarreratan banandu beharko diren ikusteko:

Inhumano-a: *desalmado, cruel, brutal, despiadado, duro, feroz, implacable, sanguinario, atroz, bárbaro, bestial, brutal, carnicero, incompasivo, cruel, cruento, desalmado, despiadado, duro, feroz, fiero, violento, salvaje, inhospitalario, monstruoso, sangriento, sanguinario, terrible, sádico, sañudo, truculento, inexorable, encarnizado, inicuo...*

Prudencia: *cordura, sensatez, cautela, moderación, juicio, circunspección, tacto, comedimiento, ponderación, reflexión, seriedad, madurez, acierto, arrojo, atolondramiento, aturdimiento, audacia, austeridad, bachillería, burrada, cautela, comedimiento, compostura, juicio, recato, desfachatez, lógica, medida, mesura, miramiento, precaución, previsión, razón, reserva, reservas, seriedad, seso, silencio, sobriedad, templanza, tiento, tino...*

Entusiasmo: *admiración, pasión, apasionamiento, emoción, arrebato, fogosidad, enardecimiento, fervor, vehemencia, frenesí, ánimo, afán, ardor, calor, empeño, acaloramiento, acción, aclamación, admiración, adoración, agrado, ahínco, alborozo, alegría, aleluya, apasionamiento, apoteosis, ardor, arrebatamiento, arrobamiento, arrojo, celo, jovialidad, júbilo, dedicación, delirio, devoción, efervescencia, euforia, exaltación, excitación, fanatismo, fervor, frenesí, fuego, hervor, inspiración, intensidad, lirismo, optimismo...*

Oportuno sarreraren kasuan, lau hiztegiak baturik, honakoak zenbatu doguz: *erazko, egoki, era oneko, behar dan momentuko/behar den mementoko, apropos*; *autuko /hautu(z)ko, aukerako, hartako, hautu, aukeratu; jaseko, taiuzko/taxuzko, ganorazko, burutsu, jeinutsu, asmotsu, (buru)argi, mainatsu, burugin, eroso*, *erako*, *ordu oneko, aiutu*, *beharrezko, alagalako, ateralditsu, beharrezko, bidezko.*

Asko direla emoten dau, eta izan be ez dira gitxi, baina begira orain espainolez zer aurkituko dogun, sinonimoak non banandu badagoela ikusteko, han-hemen errepikatzen ibili barik:

Pertinente, preciso, necesario, apropiado, conveniente, puntual, exacto, acertado, adecuado, apropiado, bueno, correspondiente, idóneo, indicado, correcto, justo, ajustado, propio, providencial, procedente, satisfactorio, válido, ocurrente, gracioso, ingenioso, chistoso, agudo, salado, clarividente, inteligente, perspicaz, sutil, avispado, listo, chusco, despejado, vivo.

Hiztegiaren egikera

Azkenik, hiztegiaren emoitza "ideala" gauzatuko bada, bere egikerak be ideala izan behar dau. Hau da, behar den modukoa. Alegia, ekipo nazional baten lana. Hiztegira jotzen dogunean, egoera ideala litzateke jakitea euskaldun guztiok (edo gehienok), bai Euskal Herrian, bai atzerrietan, hiztegi berera jotzen dogula. Horrek ez dau esan gura hainbat hiztegi mota egon behar ez denik, baina batek izan behar leuke erreferente nagusia, batuan gabilzenean, behintzat. Ez, oraingo moduan, segun non eta nor, bakotxa hiztegi diferenteetan induska. Edo hiztegitik hiztegira zapo-saltoka.

Erreferente nagusi horrek hiztegi nazionalki konbintzentea izan behar dau. Emoitza hori lortzeko, egikerak be sinesgarria eta konbintzentea izan behar dau. Euskarak eta euskalkiek bizi daben egoeran, egikera sinesgarri eta konbintzente bakarra ekipo nazional baten lan batua izatea ikusten dot. Kontua ez da iturri guztiak erabiltzeko eta euskalki guztiei begiratzeko sentiera eta borondatea bakarrik, baizik euskalki guztietako ordezkariak egile edo partaide direktoak izatea ekipo horretan. Oraindino badakigu sentierak eta erabagiak diferenteak direla, segun nork eta nondik interpretatzen dituen. Euskara osoaren eta euskalki guztien ordezkaritza direkto horreen artean, kontsentsuak eta erizpide eta norabide komunak garatzen eta lortzen ahalegindu behar da. Zenbait kontutan ez da izango kontsentsu erraza, baina partaideen artean, preminaren kontzientzia eta helbururako borondatea bermatuz gero, gainerakoa antolakuntza eta lana da. Ez dago esan beharrik, oinarrizko kontzientzia eta borondate horreetan (baita kriterioetan be, jakina!) bat etorri ezik, ez dagoela aurreratzerik. Ni-

re ustea da –eta ez dot uste baikortasun inozoa denik– helburu horren aldeko euskaldun ‘eragileak’ askoz gehiago garela mesfidatiak edo muzintiak baino. Eta beti legez, sentiera lanbro eta tribaletan nahastu barik, emoitza bera izango da, ganorazkoa bada, konfiantza eta onarpena irabaziko dituena.

Adibide bat Euskaltzaindiaren beraren osakuntza izan daiteke, non, proportzinoak eta influentziak alde batera utzita, euskalki guztietako ordezkariek daben partaidetza direktoa erakundean. Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua be hortxe dago. Beharbada, proposatzen dihardugun hiztegi “ideal” horrek (bai euskal hiztegiak, bai erdal-euskal hiztegiak) Euskaltzaindiagaz lotura zuzena edo, gitxienez, konkurrentea izan beharko leuke. Argi dagoena da, zelan edo halan, hiztegi “ideal” hori gauzatu egin behar dela, lehenbailehen!

Hizkuntzen gabeziak: euskara eta erdara, aurrez aurre[1]

Karlos Cid Abasolo

Laburpena

Historian zehar, batzuek perfektuagotzat jo dute euskara gainerako hizkuntzak baino, eta beste batzuek, ordea, inperfektuagotzat. Perfekzioak perfekzio, mundu zabaleko idazle eta itzultzaileek badakite hizkuntza batetik bestera gorabeherak egon badaudela, eta ez nolanahikoak. Gorabehera horiek zenbait hizkuntzaren gabeziatzat eta beste batzuen perfekziotzat har ote litezke ala hizkuntza bakoitzaren ezaugarri soiltzat? Galdera horri erantzun nahian, hizkuntzalaritza modernoak hizkuntzen berdintasun ontologikoaren alde egin du.

XVI. mendetik XIX.era-edo ugari izan ziren euskararen apologistak, Esteban Garibai aitzindari izan zutelarik. Euskaltzale haiek euskararen antzinatasuna, garbitasuna eta perfekzioa laudatzen zituzten, ia beti erdaraz, Joan Claveríak Joannes Etcheberriren *Eliçara erabiltceco liburua*ren hasierako poema ezagunean salatu zuenez.

Burlatcen naiz Garibayez,
bay halaber Etchabez,
ceñac mintçatu baitire
erdaraz Escaldunez.
Ecen cirenaz gueroztic,
Escaldunac hec biac,
Escaraz behar cituzten
Eguin bere historiac.

Apologista gehienak tubalistak ere izan ziren: haien ustez, euskara Babel dorreko 72 hizkuntzetako bat zen, eta Tubalek (Noeren bilobak) eta bere senitartekoek ekarri omen zuten Iberiar Penintsulara. Euskara —zioten apologistek— hizkuntza perfektua da, hizkuntza erromanikoak ez bezala: izan ere, gaztelania, frantsesa, etab. latinaren usteltze prozesuaren ondorio besterik ez dira. Euskara, ordea, Larramendi, Astarloa, Xaho eta beste hainbaten aburuz, hain da perfektua, non adierazlea eta adierazia bat datozen: esaterako, arrari arra deitzen bazaio, ume arrek *a* bokalaz negar egiten dutelako da, eta emeari emea deitzen bazaio, ume emeek *e* mehe batez negar egiten

[1] Neure esker ona adierazi nahi diot Hiromi Yoshidari japonieraren gainean emandako argibideengatik.